

- **Funtsezko baliabideak**

Lehengaiei dagokionez, herrien udaletxeekin kontaktuan jartzea dugu pentsatuta, birziklatze-erabiltzaileentzara botatzen den erabiltzaile-olioa (oliba-olioa nahiz bestelakoak) gure enpresara bideratzeko. Bestelako osagai guztiak hornitzaile %100 ekologikoengan eskuratzeko ziurtatu gara. Sosa kaustikoa, beharrezko olio ez-birziklatua eta lore eta bestelakoen estraktuak dira olioaz gain beharrezko osagaiak.

Xaboiak inguratzeko bilgarriak, poltsak nahiz etiketak material birziklagarriez ekoiztuko ditugu, eraldatzeko lehengaiak hornitzaile ekologikoei erosita. Honez gain, ez dugu plastikoa erabiliko, paper berezia baizik. Xaboiak ekoizteko ez ditugu makinak erabiliko, eskuz egingo ditugu. Lehenengo xaboiak ekoizpenetik hilabete batzuk itxarongo ditugu, xaboiak saltzeko prest egon arte, eta bitartean ekoizten jarraituko dugu.

Sare sozialak eramateko tresna bezala gure telefono pertsonalak erabiliko ditugu, web orria sortu eta osatzeko ordenagailu bat erosi beharko dugu. Garraioaren aldetik, auto elektrikoa erosiko dugu, ingurumena errespetatzen duena.